

Mugaz bestaldeko COMPETITIV'eko proiektua bere amaierara iritsi da 82 enpresa bazkide izanik, osasungintzako 6 berrikuntza plataforma martxan jarritz eta 3 patzuergo sortuz

- COMPETITIV'eko proiektuan parte hartu duten enpresek eta erakunde sustatzaileek – Baionako Ganbera, Gipuzkoako Bazkunea, Orkestra eta Sodena-oso balantze ona egin dute mugaz bestaldeko proiektuaren inguruan.
- Proiektu berri bat aurkeztu dute POCTEFA deialdirako: **COMPET'Plus**

Euskadi – Nafarroa – Iparraldea, 2019ko maiatzak 30 – COMPETITIV'eko proiektua maiatzaren 31ean amaituko da hiru urtetan zehar Euskadi, Akitania Berria eta Nafarroa arteko mugaz bestaldeko lankidetzak burutu ondoren. Lankidetzak honi esker 3 patzuergo sortu dira, osasungintzako 6 berrikuntza plataforma jarri dira martxan eta 82 enpresa egin dira bazkide.

Epe honetan sortu diren hiru patzuergoak, ADDITIVALLEY, INNOVMEDICA Alliance eta BIG DATA suspertzen ari diren sektoreei bideratuta egon dira, berrikuntzarako indar handia duten sektoreei, hala nola, fabrikazio gehigarria, neurri egindako medikuntzarako gailuen fabrikazio eta adimen artifiziala. Horrez gain, **negozioa sortzeko 21 aukera** antzeman dira aeronautika, espazioa, petroleoa eta gasa, medikuntza eta energia sektoreetan. Mugaz bestaldeko patzuergoak sektore hauetan ari dira lanean Europako talde handientzat soluzio lehiakorrek diseinatzen: Airbus, Ariane Group, Dassault, Total, Vallourec, Potez Aéronautique, Nutislab, ENGIE, etb...

Osasungintzako mugaz bestaldeko berrikuntza plataformei dagokionez, aipatzeko da COMPETITIV'eko proiektuak barne hartzen dituen hiru lurraldeetan kokatuta dauden 6 osasun-etxeek osatzen dutela: Groupe CAPIO-RAMSAY (Akitania Berria), CUN (Iruñea/Nafarroa), Centro hospitalario de Navarra (Iruñea/Nafarroa), IMQ (Euskadi), Onkologikoa (Donostia/Gipuzkoa) y Quirónsalud (Donostia/Gipuzkoa).

Azpimarratzekoa da ere, COMPETITIV'eko proiektuak iraun duen hiru urte hauetan 82 enpresa izan direla bazkide egin direnak. Mugaz bi aldeetako enpresa hauek beste ekonomia agenteekin batera hilaren 16ean elkartu ziren Miarritzen proiektuaren amaiera ekitaldian eta erakunde sustatzaileek – Baionako Ganbera, Gipuzkoako Bazkunea, Orkestra eta Sodena- egin zuten moduan oso balantze ona egin zuten POCTEFAko % 65eko diru laguntza ematen dion mugaz bestaldeko proiektu honen inguruan. Cristina Igoak, Espainia-Frantzia-Andorra Lurralde Lankidetzeta Programako, POCTEFAko komunikazio arduradunak ere oso balorazio ona egin zuen proiektuaz *“COMPETITIV'eko mugaz bestaldeko lankidetzeta DNAn daraman proiektu bat da. Proiektuak iraun duen bitartean mugaz bestaldeko lankidetzeta barneratua izan du eta proiektua sortu zenetik presente egon dela ikusten da, bere garapenean eta egin diren ekintza guztietan. Emaitzeetan ikus daiteke lankidetzeta hau, batez ere mugaz bi aldeetako enpresen artean sortu diren lankidetzatan. **Enpresak beraiek dira proiektu honen bultzadarik gabe “muga zeharkatzea” ez zela posible izango nabarmentzen dutenak”**.*

POCTEFA deialdira aurkeztutako proiektu berria

COMPETITIV'eko programak lortutako emaitzak kontutan hartuz, Baionako Ganberak, Gipuzkoako Bazkundeak, Orkestrak eta Sodenak, eta proiektura gehitu den Euroregion Nouvelle Aquitaine – Euskadi – Navarrak, programa berri bat aurkeztu dute POCTEFAko azken deialdirako:

- **COMPET'Plus.** Proiektu honen helburua hiru lurraldeetako enpresa, ETE eta zentru teknologikoen artean berrikuntza plataformak sortzea da. Energia, mugikortasuna, nekazaritzako elikagaiak eta sormen industriako sektoreei lehentasuna emanaz.

POCTEFA

POCTEFA 2014-2020, INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra programaren akronimoa da. Lurralde lankidetzarako programa europear bat da, hiru herrialdeen artean lurralde mugakidearen garapena sustatzeko sortua. Programak mugaz bestaldeko lankidetzeta proiektuak bultzatzen ditu Pirineotako bi aldeetako eta programan parte hartzen duten itsasertzeko guneetako agenteengaitik diseinatuak eta kudeatuak, lurraldearen garapen adimentsua, iraunkorra eta integratzailea babestuz.